



## 170. OSOKO BILKURAKO AKTA

Zumaia herrian, 2022ko irailaren 20an, goizeko zortzi eta erdietan, udaletxe honetako batzar aretoan Udalbatza eratu da ezohiko bilkura egiteko, aurrez zehaztutako eguneko aztergaien arabera. Garaiz eta zuzen deitu direlarik, Udalbatzako kide hauek bertaratu dira:

Lehendakaria: Iñaki Ostolaza Esnal, jna.

Bertaratutako zinegotziak: Alex Oleden Antia, jna.

Maider Alberdi Yeregui, and.  
Marina Bidasoro Arocena, and.  
Iker Mardaras Arrieta, jna  
Ainhoa Illarramendi Azkue, and.

Ez bertaratuak: M. Arritokieta Iribar Egaña, and.  
Asier Arakistain Alberdi, jna.  
Maddi Aldalur Osa, and  
M. Aranzazu Gajate Telleria, and.  
Jose María Azkue Castillo, jna.  
Oier Korta Esnal, jna.  
M. Cruz Alvarez Aparicio and.  
Gotzon Embil Unanue, jna.  
Cristina Vicente Iciar, and.  
Miren Aitziber Odriozola Etxezarreta, and.  
Arritokieta Marañón Basarte, and

Idazkaria: Ander Cestona Unanue

### 1.- AURREKO BILERETAKO AKTAREN ONARPENA, BIDEZKO BADA: (169. zbkia – 2022.07.28 )

169. Akta onartutzat ematen da .

Dokumentu kod./Cod. Documento	2022IAKU0008-N22/0095
Dokumentu Egiaztatzailea Verificador de documentos	<a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAADS4FC.6WyD">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAADS4FC.6WyD</a>



**2.- LURRALDE ANTOLAMENDUA (Hirigintza, Ingurumena, Zerbitzuak eta Auzoak).-**

**LURRALDE ANTOLAMENDUAREN BATZORDEAREN IRIZPENA, 2022KO IRAILAREN 14KOA, ZUMAIKO KARMELDAR OINUTSIEN KOMENTUA BIRGAITZEKO EGIKARITZE-PROIEKTUA EXEKUTATZEKO KONTRATAZIO ESPEDIENTEAN AURKEZTUTAKO PROPOSAMENEN HURRENKERA ONARTZEKO.**

**AURREKARIAK**

**LEHENA.-** Ikusita Zetabi Arkitektura Bulegoa S.L.P.k egindako ZUMAIKO KARMELDAR OINUTSIEN KOMENTUA BIRGAITZEKO EGIKARITZE-PROIEKTUA izena duen proiektua eta hori 2022ko martxoaren 30eko Osoko bilkuraren erabaki bidez onartu zela

**BIGARRENA.-** Ikusita Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak eta Ingurumen sailak egin duen memoria aipatutako proiektuan jasotako obrak exekutatze beharra justifikatzen duena.

**HIRUGARRENA.** Adjudikatu nahi den kontratuaren ezaugarriak ikusita:

Kontratu-mota: OBRA-KONTRATUA Tipo de contrato: CONTRATO DE OBRAS	
Kontratuaren xedea: ZUMAIKO KARMELDAR OINUTSIEN KOMENTUA BIRGAITZEKO EGIKARITZE-PROIEKTUA EXEKUTATZEA Objeto del contrato: EJECUCIÓN DEL PROYECTO DE EJECUCIÓN PARA LA REHABILITACIÓN DEL CONVENTO DE CARMELITAS DESCALZAS DE ZUMAIA	
Kontratazio-prozedura: IREKIA Procedimiento de contratación: ABIERTO	Izapidetze-mota: ARRUNTA Tipo de Tramitación: ORDINARIO
Kontratazio-arloko errekurtso berezia jar daiteke: BAI Susceptible de recurso especial en materia de contratación: Sí	
CPV kodea: 45000000-7 Eraikuntza-lanak Código CPV: 45000000-7 Trabajos de construcción	
Kontratuaren balio zenbatetsia: 4.202.654,21 € Valor estimado del contrato: 4.202.654,21 €	
Sailkapena: C taldea, 2 azpitaldea, categoria 4 K taldea, 7 azpitaldea, categoria 3 Clasificación: Grupo C, subgrupo 2, categoría 4 Grupo K, subgrupo 7, categoría 3	

Dokumentu kod./Cod. Documento	2022IAKU0008-N22/0095
Dokumentu Egiaztatzailea Verificador de documentos	<a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAADS4FC.6WyD">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAADS4FC.6WyD</a>



Lizitaziorako oinarrizko aurrekontua BEZ gabe: 4.202.654,21 €	BEZ (%21): 882.557,38 €
Presupuesto base de licitación IVA excluido: 4.202.654,21 €	IVA (%21): 882.557,38 €
Lizitaziorako oinarrizko aurrekontua BEZ barne: 5.085.211,59 €	
Presupuesto base de licitación IVA incluido: 5.085.211,59 €	
Gauzatzeko epea: 20 HILABETE	
Duración de la ejecución: 20 MESES	

**LAUGARRENA.-** Ikusita espedientean dauden gainontzeko agiriak:

- 2020ko ekainaren 15eko Osoko Bilkuraren akordio bidez onartutako "ZUMAIAKO KARMELDAR OINUTSIEN KOMENTUA BIRGAITZEKO EGIKARITZE-PROIEKTUA".
- Justifikazio memoria eta baliabide nahikorik ez dagoelako txostena.
- Loteetan ez zatitzeko txostena.
- Kontu-hartzailetzako txostena, adierazten duena aurrekontuko baliabideekiko zenbatekoa den kontratazioak dakarren gastuaren ehunekoa.
- Idazkaritzako txostena, jarraitu beharreko prozedurari buruzkoa.
- Baldintza administratiboen agiria.
- Baldintza teknikoen agiria.
- Eranskinak
- Euskara saileko txostena.
- Berdintasun saileko txostena.
- 2022ko ekainaren 17ko Lurralde Antolamenduaren batzordearen irizpena.
- Kontratazio espedientea onartzeko 2022ko ekainaren 22ko Zumaia Udaleko Osoko Bilkuraren erabakia.
- Lizitazioaren iragarkia kontratugilearen.
- "A" artxiboak irekitzeko kontratazio-mahaiaren akta.
- "B" artxiboak irekitzeko kontratazio-mahaiaren akta.
- Balorazio teknikoaren txostena
- "C" artxiboak irekitzeko, eskaintzak sailkatzeko eta adjudikazio proposamena egiteko kontratazio-mahaiaren akta .

**BOSGARRENA.-** Kontuan hartuta sailkapen onena duen lizitatzailerak nahitaezko dokumentazioa aurkeztu ondoren, adjudikazioa bost egun baliioduneko epean egin behar dela, eta presako osoko bilkurarako deialdirik egin behar ez izateko, proposatzen da osoko bilkurak Alkatetzaren esku uztea kontratuaren adjudikazioa, eraginkortasun eta arintasun administratibo handiagoa lortze aldera.

Agiriak aztertuta eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak Espainiako ordenamendu

Dokumentu kod./Cod. Documento	2022IAKU0008-N22/0095
Dokumentu Egiaztatzailea Verificador de documentos	<a href="https://uzf.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAADS4FC.6WyD">https://uzf.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAADS4FC.6WyD</a>



juridikora ekartzen dituenak, 150. artikuluan eta Bigarren Xedapen Gehigarrian xedatutakoaren arabera, Osoko bilkurari dagokio eskaintzen sailkapena onartzea kontratazio mahaiak egindako proposamenaren arabera.

## IRIZPENA

Ondorioz, 2022ko irailaren 14ko Lurralde Antolamenduaren batzordean bozketa egin da, honako emaitzekin:

**Allde:** Iñaki Ostolaza Esnal (EH Bildu)  
Alex Oliden antia (EH Bildu)  
Marina Bidasoro Arocena (EH Bildu)  
Ainhoa Illarramendi Azkue(EAJ)

**Aurka:** 0

**Abstentzioa:** 0

ALDEKO irizpena eman da eta honako PROPOSAMEN hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikulua xedatutakoaren arabera. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47 artikuluan araututakoari jarraituz, bertaratutako kideen gehiengo soilaren quorumarekin hartu beharko du erabakia. **PROPOSAMENA:**

**LEHENA.-** Lizitatzailerek aurkeztutako eskaintzak sailkatzea, kontratazio mahaiak egindako proposamenaren arabera eta handitik txikirako ondorengo hurrenkeran:

1. ALTUNA Y URÍA S.A.: 84,86 puntu
2. OBRAS DE CONSTRUCCIÓN E INSTALACIONES S.A.: 75,27 puntu
3. GOITU ERAIKUNTZAK S.L.: 68,30 puntu

**BIGARRENA.** Zerbitzu eskudunek eskaria egitea ALTUNA Y URÍA S.A. lizitatzaileri, eskaintza hoberena aurkeztu duenari, hamar laneguneko epean Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, 140.1 artikuluan aipatzen dituen aurretiazko baldintzak betetzen dituela justifikatzen duten agiriak aurkez ditzan; horrez gain, kontratua gauzatzeko gorde edo atxiki beharreko bitartekoak egiaz eskura dituela erakutsi beharko du agiri bidez, 76.2 artikulua arabera; eta behin betiko bermea eratu duela ere erakutsi beharko du.

Dokumentu kod./Cod. Documento	2022IAKU0008-N22/0095
Dokumentu Egiaztatzailea Verificador de documentos	<a href="https://uzf.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAADS4FC.6WyD">https://uzf.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAADS4FC.6WyD</a>



**HIRUGARRENA.-** Kontratua adjudikatzeko eskumena alkateari eskuordetzea, proposatutako lizitatzailleak nahitaezko dokumentazioa aurkeztu eta Idazkaritzak proposamen-txostena egin ondoren.

Aldeko bozkak: 6 bozka aldekoak (4 EH Bildu, 2 EAJ-PNV )

**Aldeko botoak: 6 boto (4 EH BILDU, 2 EAJ-PNV,)**

**Kontrako botoak: 0**

**Abstentzioak: 0**

**ERABAKIA:**

**LEHENA.-** Lizitatzailleek aurkeztutako eskaintzak sailkatzea, kontratazio mahaiak egindako proposamenaren arabera eta handitik txikirako ondorengo hurrenkeran:

- 1.ALTUNA Y URÍA S.A.: 84,86 puntu
- 2.OBRAS DE CONSTRUCCIÓN E INSTALACIONES S.A.: 75,27 puntu
- 3.GOITU ERAIKUNTZAK S.L.: 68,30 puntu

**BIGARRENA.** Zerbitzu eskudunek eskaria egitea ALTUNA Y URÍA S.A. lizitatzailari, eskaintza hoberena aurkeztu duenari, hamar laneguneko epean Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, 140.1 artikuluan aipatzen dituen aurretiazko baldintzak betetzen dituela justifikatzen duten agiriak aurkez ditzan; horrez gain, kontratua gauzatzeko gorde edo atxiki beharreko bitartekoak egiaz eskura dituela erakutsi beharko du agiri bidez, 76.2 artikuluaaren arabera; eta behin betiko bermea eratu duela ere erakutsi beharko du.

**HIRUGARRENA.-** Kontratua adjudikatzeko eskumena alkateari eskuordetzea, proposatutako lizitatzailleak nahitaezko dokumentazioa aurkeztu eta Idazkaritzak proposamen-txostena egin ondoren.

Beraz, onartutzat ematen dugu proposamena eta honekin bukatutzat ematen dut Ezohiko Osoko Bilkura. Eskerrik asko.

-----

Dokumentu kod./Cod. Documento	2022IAKU0008-N22/0095
Dokumentu Egiaztatzailea Verificador de documentos	<a href="https://uzf.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAADS4FC.6WyD">https://uzf.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAADS4FC.6WyD</a>



**Zumaia Udala**

2022IAKU0008-N22/0095

Eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, goizeko bederatzia hogeita bost gutxi direnean eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

Idazkaria

Dokumentu kod./Cod. Documento	2022IAKU0008-N22/0095
Dokumentu Egiaztatzailea Verificador de documentos	<a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAADS4FC.6WyD">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAADS4FC.6WyD</a>